

## Zer kotizatu

**K**

anpotik edo barrutik, konpromisoz edo inplikazioz, dermisa bakarrik ukituz edo epidermisa ere geure egini, badauzkat nik hiru lagun, José Luis eta Ixiar, aurreko asteetan zuek lerrotutako ideiak laburbiltzen dituztenak.

Lehenengoa: asmatzailea edo “inbentorea” da. Kaleko hizkuntzan, “zoro bat”. Existitzen ez diren gauzak asmatzea da bere lana. Eta bi lan mota egiten ditu: bata, soldata irabazteko balio diona, jostailu lantegi bateko ikerlari gisa dihardu, gabonetarako jostailu berriak diseinatzen. Lan polita izanagatik ere, alferrekotzat dauka. “Umek astebetean alde batera utziko duten jostailuetan hainbeste inbertitzea ere...” esaten du. Baina tira, lantegiko ikertaldean dago eta lantegiak aurrera egiten duen bitartean, berak bere lana egiten jarraituko du.

Beste lana, ordea, lan orduz kanpo egiten du: asmatzen jarraitzea da bere lana; jostailuak alde batera utzi eta burura etortzen zaion edozer gauza asmatzea da bere pasioa. Orain arte, bi objektu berri patentatu ahal izan ditu eta horiek dirutza bat suposatzen izan diote. Baina bera, patentatu gabe eta aurrera egin ezinik gelditzen diren gainontzeko asmaketez da kexu. Patentatu direnak bezain onak direla argudiatzen baitu. “Baina gainetik dagoenak ez badu ikusten, bada, ez du ikusten. Itxarotea tokatzen da”, esaten du frustrazio ukitu nabarmenez.

Bigarrena: bere lanbidea enpresak, berrikuntza eta kultura elkarrentzako lanean jartzea da. Hau da, enpresek berriro ahal izateko, artista batekin edo batzuekin harremanetan jarri eta produktu berriak sortzen saiatzea. Bada, egitasmo hauek, berrikuntzarekin lotuta egotean, diruz laguntzen dituzten

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Rozas

erakundeen onespena behar dute eta ohikoak zaizkigun industria makinentzako denean, babes osoa lortzen dute baina sektorez aldatzea otu zaionean, zeharkatu ezinezko harresi batekin egin du topo. Lagun hau ere, beste begi batzuekin ikusten ikasi arte, ez dagoela zereginik kexuz entzun izan dut.

Hirugarrena: erakunde bateko komunikazioz arduratzen da. Eta kexu da, saldu beharreko “saboréalo” kanpainarekin Euskal Herriari eman nahi diogun ikuspegi azalaz, hau da, turistikoaz, eta kanpainaren hartzailetzat zehaztu den publikoaz: barnekoa areago, kanpokoa baino. Horrek, gure nortasunaz asko esaten du. Nola zehaztu dugun

lehenik, kanpotik edo barrutik parte hartzeko egin dugun, eta norbanako bakoitzaren inplikazio gradua zein izatera bultzatzen gaituen.

Hiru adibide, bada, hurbilekoak zaizkigun profesional ezberdinek parte-hartzea eta inplikazioa nola bizi duten azaltzeko. Lanetik ikusita. Hots, horretara dedikatzen direnen ikuspegi, ahala eta ezina.

Baina lana halaxe da, soldata bertatik irabazi

edo ez. Eta kritikak, zein partaidetzak zein inplikazioak ezintasun hauei guztiei buelta emateko daude. Gauzak hankaz gora jartzeko...

Asmatzaileak badaki mundua ez duela bi urtean aldatuko. Komunikatzaileak badaki gobernu bakoitzak slogan bat aldaraziko diola. Eta berrikuntza sustatzaileak ondotxo daki erakundeetako ateak jotzen pasatuko dituela datozen hamarkadak. Baina saiatu saiatuko dira eta aurrera egingo duten urrats bakoitza, garaipena izango da hobekuntzara bidean.

Beranduegi batzuentzat, noski baietz. Denbora eta hobetzeko grina ez baitira, egundo, burtsan kotizatu. ■

Asmatzaileak badaki mundua ez duela bi urtean aldatuko.

Komunikatzaileak badaki gobernu bakoitzak slogan bat

aldaraziko diola. Eta berrikuntza sustatzaileak

ondotxo daki erakundeetako ateak jotzen pasatuko

dituela datozen hamarkadak. Baina saiatu

saiatuko dira eta aurrera egingo duten urrats

bakoitza, garaipena izango da hobekuntzara bidean